

# TXIKITZEN ZARETENEAN

## GURASOEI LOAK HARTU AURRETIK KONTATZEKO IPUINA

Testua: UXUE ALBERDI

Ilustrazioak: AITZIBER AKERRETA

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 22 cm. 32 orr. 13 €.

**Txikitzen zaretenean** (euskaraz)  
ISBN 978-84-7681-762-9. Kalandraka-Pamiela.

**Cuando os hagáis pequeños** (gaztelaniaz)  
ISBN 978-84-8464-815-4. Libros para soñar.

**Cando sexades pequenos** (galegoz)  
ISBN 978-84-8464-816-1. Demademora.

*Txikitzen zaretenean ez duzue lanera  
joan beharrik izango.*

*Horren ordez putzuetan salto egingo  
duzue zapaburu bihurtu arte...*


Haurtzaroari buruz esan diren gauzen artean, Rainer Rilke idazle austriarrarena izango da seguru aski ezagunena eta errepikatuenena: "Gizakiaren aberri bakarra da". Umeek haztean aurkituko duten mundua nolakoa den kontatu beharrean, kontakizun honek hankaz gora jartzen ditu narratzaileen eta irakurleen paperak. "Txikitzen zaretenean" gurasoei eta pertsona helduei kontatzeko ipuina da, eta haurren ikuspegitik kontatzen du nolakoa izango den gurasoak txikitzen direnean (kasu hipotetiko horretan) aurkituko duten mundua. Bizi-zikloa azpikoz gora jartzen du.

Uxue Alberdik eta Aitziber Akerretak haurren mundua nagusien mundutik bereizten duen amildegiaren aurrean kokatzen gaituzte: gurasoak lanarekin eta etorkizuneko planekin kezkatuta dauden bitartean, gizarteko arau zurrunetan edo helduen arteko eztabaidetan harrapatuta dauden bitartean, haurrek nahiago dute masustak biltzea, putzuetan jauzika ibiltzea, animaliekin hitz egitea edo mundua nolakoa den aiton-amonen eskutik ezagutzea.

Testuaren izaera poetikoaren osagarri dira grafitoz eta koloretako arkatzez egindako ilustrazioak. Ipuin honetako orrialdeetan elkarren ondoan bizi dira haurrak eta helduak, ez elkarrekin, ordea. Kolorea baliabide sinboliko bihurtuta, umeen mundua kolorez eta dinamismoz beterik azaltzen zaigu, helduen mundu grisari kontrajarrita. "Txikitzen zaretenean"-ek haur izaten jarraitzeko deia luzatzen die haurrei, eta gurasoak, pertsona helduak, behinola ahaztutako inozentzia, irudimena eta naturaltasuna berreskuratzea animatzen ditu. Posible baita, saiatuz gero.

www.kalandraka.com  
comunicacion@kalandraka.com

www.  Pamiela .com  
ctxca  
softxate@pamiela.com



- **Galak:** Helduen mundua haurren ikuspegitik begiratuta.
- **Gomendatutako adina:** 6 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** Helduen eta haurren arteko kontrastea; haurren begirada; umezaroa berreskuratzea; koloretako eta zuri-beltzeko eszenen esanahi sinbolikoa.

### Uxue Alberdi

(Elgoibar, Gipuzkoa, 1984)

Kazetaritzan lizentziatua, idazlea eta bertsolaria. Hainbat hedabidetan lan egin du erredaktore, artikulugile eta literatur irratsetako esatari gisa. Sorkuntza literarioarako bi beka jaso zituen. *Aulki bat elurretan* (Elkar, 2007) ipuin-liburuaren eta *Aulki-jokoa* (Elkar, 2009) nobelaren egilea da (azken hau gaztelaraz ere argitaratu zen 2011n). 2004tik hainbat sari jaso ditu ipuin eta bertso-paper lehiaketetan. Haur literaturan hainbat ipuin idatzi eta euskaratu ditu. Gaur egun literaturan eta bertsogintzan ari da.

### Aitziber Akerreta

(Iruñea, 1979)

Arte batxillergoa egin zuen Iruñeako Arte Eskolan eta Arte Ederretan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean. Pinturan espezializatu zen. Unibertsitate-ikasketak amaitutakoan, haurrekin lan egin zuen hainbat heziketa proiektutan. Litografia, diseinu eta ilustrazio ikastaroetan parte hartu du. Gaur egun ilustratzaile lana beste hainbat jardueraren artean zehar egiten du.

<http://aitziberakerreta.blogspot.com>

